


Protekzio ofizialeko etxebizitzak, Antziolan eta Ereñotzun

■ Antziolan Kurtidora zegoeneko horretan egingo dira ■ Ereñotzun lur jabeak eta udala ados jarri dira.
■ Udalak etheen antolaketa berria egin du. Orain Diputazioak onartu behar du.



Antziolan, bidez eskubi aldera geldituko dira etxe berriak. (Arg: udalak utzia)



Ereñotzun, lehengo granja zaharraren gainean joango dira etxeak.

ANTZIOLAN, 96 etxebizitza egingo dituzte lehengo kurtidora zegoen tokian (Puig eremuan). Etxebizitzetatik 36 babes ofizialekoak izango dira, udalak eta konstrukturak hitzartu bezala. Sei hilabeteren buruan, udalak erostunen zerrenda egingo du, konstrukturari pasa ahal izateko.

BALDINTZAK JARTZEN
Babes ofizialeko etxebizitzak banatzeko, erostunak bete beharreko baldintzak az-

tertzen ari da udala. Baldintzak zehaztean, zabalduko da izena emateko epea (bere garaian udalak jakitera eman go du). Sei hilabeteren buruan aukeratu dira zein diren babes ofizialeko etxe berrietan sartuko diren herna-

EREÑOTZUN PLANA AURRERA

Ereñotzun ere badirudi etxebizitzak egingo dituztela, oraintsu ados jarri baitira lur

jabeak eta udala. Udalak egin du etxebizitzaren antolaketa berria. Orain, Diputazioak sei hilabeteko epean onartu behar du antolaketa hori, gainerako urratsak emate hasi

Lau Haizeta
SUMINISTROAK

Antziola 10
Tel 943 55 25 61
20120 HERNANI (Gipuzkoa)

ahal izateko. Dena ondo joan ezker, maiatza bukaerarako antolaketa berriak onartua beharko luke.

HOGEITA LAU BIZITZA BERRI

24 etxebizitza joango dira guztira: 12 babes ofizialekoak eta beste 12 pribatuak. Babes ofizialekoak seina bizitzako bi bloketan egingo dituzte; pribatuak, berriz, bi bizitzatako sei etxetan.

KOOPERATIBA

Manuel Fraile hirigintza zinegotziak esan digunez, babes ofizialeko etxebizitzetarako Ereñotzuko bizilagunekin kooperatiba bat egiteko asmotan dira (beste edozein proposamen aztertze prest daude). Kooperatiba egingo balitz, udalak jarriko lituzke jendea aukeratzeko irizpideak, eta zozketa bidez erabakiko da etxebizitzak norentzat diren.

EA-EAJ: "KONTROL POLITIKOA DAGO"

EA-EAJ udal taldeak dio legegintzaldia hasi aurretik eskatzen ari direla Arau Subsidiarioak berrikustea. EA-EAJren iritziz Batasunak eztabaida hori sahiestu egin nahi du, ordea, hernaniarroi hirigintza eztabaida ukatu eta "kontrol politikoa mantentzeko". Horregatik "mugatzten dute eztabaida eremu eta proiektu konkretu batzuetara". Hor kokatzen dituzte Puig eta Ereñotzuko kasuak. EA-EAJk ez du uste etxebizitzaren beharra zailtzan jarri behar denik, baina, dago Batasunak zailtzan jartzen duelakoan. □

BERTSOLARI TXAPELKETA

Mendiluze Bilbon eta Irazu Tolosan, bihar eta etzi

EUSKAL Herriko Bertsolari Txapelketako azken bi finalurrekoak bihar eta etzi jokatu dira, Bilbon eta Tolosan. Bihar Hernaniko Bertso eskolako Aitor Mendiluzek kantatuko du Iturriaga, Maia, Silveira, Enbeita eta Kolinarekin batean. Arratsaldeko 18:00etan Ayala antzokian.

IGANDEAN, TOLOSAN

Igandean Tolosako Beotibar pilotalekuan izango da finalurrekoa, eta orduan jakingo da zein zazpikotek kantatuko duen Andoni Egañarekin batean, finalean. Hernaniko bertso eskolako Jexux Mari Irazurekin Elortza, Goikoetxea, Paia, Mendizabal eta Elustondo ariko dira.

Mendiluze eta Irazuk nahikoa izango dute aurreko saioko mailari eustea, aurtengo finalean izateko. Irazuk 739.5 puntu ditu eta Mendiluzek 731.5. Lehen buelta hirugarren eta seigarren bukatu dute.

Dagoneko, Maialen Lujanbio dago finalerako sailkatua. Maialenek saio onak egin zituen bai Etxarrin eta bai Hendaian, eta bietan taldeko puntuaziorik onena ateratu zuen.

FINALERAKO SARRERAK

Finalerako sarrerak finalurreko saioen ostean jartzen dituzte salgai. Astelehenetik hilaren 13a arte jarriko dituzte herriz herri salgai. Hernanin Justo tabernan egongo dira 3.500 ptan. □

SENIDEAK-GUREAK

Kontzentrazioa

Euskal presoak Euskal Herrira ekartzeko eskatuko du, gaur, Senideak-Gureak elkarteak Gudarien plazan egingo duen kontzentrazioan: 20:00etan. □

MARI FERRER
ARRANDEGIA

Nagusia 36
943 55 04 89

Orkolaga 17
943 55 27 41

HERNANI

mikel armendariz
proiektu eta instalazio elektrikoak

Tel. 649 846 422
HERNANI

Herriko Xake Txapelketa aurrera dijoa



Sagardogiako kideak, sagardo txapelketa ondorenean.

HERNANIKO Xake Txapelketa ari da jokatzten, eta lehen fasea aurrera dijoa. Denera, 48 xake jokalaria dira lehian, zortzi taldetan banatuta. Iaz egin zen antzera, ordea, lehenengo fasean ez da inor eliminatuko. Fase hau izango da bakoitzaren maila ikusi eta bigarren faseko taldeak osatzeko. Kanporaketak bigarren fasetik aurrera hasiko dira.

Partidak bost tabernetan ari dira jokatzten: Goiz Argi, Txema, Aker, Bodega eta Kitton. □

100 ume inguru ipuinak aditzen

■ Umeak ipuinean oso sartuta egon ziren ■ Bai antolatzaileak eta bai Itziar Zubizarreta kontalaria oso gustora gelditu dira ■ Hurrena, Eguberrietan.



Itziar Zubizarretak umeak txora-txora eginda eduki zituen bere ipuinekin.

HIRU eta zortzi urte bitarteko umeentzat ipuinak izan dira liburutegian. Bi saio izan ziren eta bietan ume-gela leporaino bete zen. Liburutegiko ardura-dun batek esan digunez, ume-


ak oso gustora eta ipuinetan oso zentratuta egon ziren. Horren adibide da Itziar Zubizarreta kontalaria normalen 20 minutuko saioak egiten baditu ere astelehenean doble

denborakoa egin zuen, 5-8 urte bitartekoekin.

Ipuin kontaketak hilabeteetan behin izaten dira. Da-torrena, Eguberrietako jaietan izango da, goizez. □

Udala ari da Eguberrietako argiak jartzen

■ Aurten beste iluminazio sistema bat jarri du ■ Bonbilak jarri beharrean, ‘hariak’ dira.



Udaletxeko langile bat argia jartzen, Elkano kalean

EGUBERRIetako hilabetera etorri gara eta kaleak hasi dira preparatzen. Udaleko argi zerbitzua ari da instalazioak jartzen. Gainera, aurten sistema berria jarri du. Langile batek azaldu digunez, orain

arteana bonbilak jartzen ziren: 12.000 bonbila. Orain, hari moduko figura luminoso batzuk jartzen ari dira, argazkian ikusten den modukoak. Denera, 80 figura jarriko dituzte, herriko 40 lekutan. □

■ HITZ BITAN

✓ MUS TXAPELKETA

Ereñotzun gaur hasiko dira Irrintzi tabernako mus txapelketak. Gaur hasi eta maiatza bitartean, ostiralero mus txapelketak izango dira Ereñotzun. Txapelketa honetan bi sari izaten dira: bat, Mus Txapelketan aurren-bigarren egiten dutenentzat; bestea erregularitatean lau aurre-nekoentzat. Ostiraleroko postuak batu eta puntu gehiena ateratzen dituzten lau aurrenekoek bazkari ederra izango dute. Partidak gaueko 10:30etan hasiko dira.

✓ DOBERA

2001-eko egitasmoa aurkezteko batzarra gaur. Dobera Euskara Elkartea gaur egingo du 2002-ko egitasmoa aurkezteko batzarra. Biterin, arratsaldeko 19:00etan.

✓ ARANO

Andoni Egaña eta Maialen Lujanbio. Bertso afaria izango da larunbatean, Aranoko soziedadean. Udalak antolatuta, Maialen Lujanbio eta Andoni Egaña arituko dira bertsoan, afalondoan. Afaria 21:30etan izango da.

✓ BITERI

Harri tailatzeko ikastaroa. Biteri kultur etxeak harria tailatzeko ikastaroa eskainiko du datorren urtariletik aurrera. Apuntatu nahi duenarentzat, matrikula epea abenduaren 4tik 14ra da. Tailerra asteazken arratsaldeetan izango da: 18:00-etatik 20:30etara, Harriatsuko eskola zenean. Irakaslea Iñaki Saralegi izango da. □

IRRATIAK

(F.M. 99.2) 11:40: Jai egunen auzia. NEAE-ko kide batekin elkarrizketa abenduaren 3a jai egun izateri buruz **12:30:** AHT-ren aurkako Mendi Martxa. Jaxone Usandizaga **13:00:** Nahia da gaia programan Bosniara eging-dako bidaiari buruz.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK	☎ FARMAZIAK
►Taxiak: 943 550093	►Egunez: Sagastiberri
►Udaltzaingoa: 943 333288	Urbieta 7
►DYA: 943 464622	☎ 943 552941
►Autobusak 943 556662	►Gauetz: Gil
►Anbulatorioa: 943 557750	Lasarte. Nagusia 24
►Jokalari anonimok 943 331103	☎ 943 361529

IRAGARKI MERKEAK

■ Gazte bat behar da Hernaniko taberna batean lan egiteko. Euskaraz dakiena. Interesatuak deitu: 658 750896 edo 943 364605 telefonora.

ESKOLARTEKO KIROLA - PARTIDUAK

HOCHEYA	TALDEAK	NON	01/12/01	SASKIBALOIA	TALDEAK	NON	01/12/01
Benjaminak	Langile C-Langile B	Kiroldegia	11:00	Alebinak. Neskak	Langile A-Oleta	Kiroldegia	9:15
Benjaminak	Elizatxo-Urumea	Kiroldegia	11:45	Alebinak. Neskak	Langile-Urumea	Kiroldegia	10:15
ERRUGBIA	TALDEAK	NON	NOIZ	Alebinak. Neskak	Elizatxo-Maria Auxil.	Kiroldegia	10:15
Benjaminak	Langile A-Inmaculada	Kiroldegia	9:15	Alebinak. Mutilak	Mari Ward A-Langile B	Donostia	
Benjaminak	Urumea-Langile C	Kiroldegia	10:00	Alebinak. Mutilak	Katalina-Inmaculada	Donostia	
Benjaminak	Elizatxo B-Langile B	Kiroldegia	10:45	Infantilak. Mutilak	Langile-Herri Ametsa	Kiroldegia	11:45
FUTBOLA	TALDEAK	NON	NOIZ	Infantilak. Mutilak	Inmaculada-Deutsche	Kiroldegia	11:45
Infantilak	Laskorain-Urumea	Tokosa		BOLEIBOLA	TALDEAK	NON	NOIZ
PELOTA	TALDEAK	NON	NOIZ	Alebinak	Pamendi-Elizatxo	Andoain	11:00
Alebinak	Elizatxo A-Elizatxo B	Kiroldegia	9:15	ESKUBALOIA	TALDEAK	NON	NOIZ
Alebinak	Langile B-Langile A	Kiroldegia	9:30	Alebinak	Elizatxo A-Presetacio	Urniet	10:00
Alebinak	Urumea-Langile C	Kiroldegia	9:45	Alebinak	Urumea-Udarregi A	Urniet	9:00
Infantilak	Langile A - Langile B	Usurbil	16:30	Alebinak	Udarregi B-Elizatxo B	Usurbil	9:00
Infantilak	Udarregi A- Elizatxo	Usurbil	16:30				